



▲ **UTZITA**
XVI. mendean
Madalenan os
baino lehen, a
zenbakidun et
garai bateko o
eraikinak. Asp
hutsik zeuden
oso egoera ka

Ospitale berria

Madalenako eraikina guztiz eraberritu eta maiatzaren 1ean inauguratuko dute jesuitek bertan prestatu duten interpretazio zentroa. 📧 Mailo Oiarzabal 📍 Jose Manuel Añon



A.
n eraiki zuten
ospitalea. Eraberritza
uzoko 14, 15 eta 16
txeek hartzen zuten
ospitalearenak ziren
aldiko urteetan
n etxebizitzak, eta
askarrean eraikinak.



▲ ZATI BAT, ERAITSIA.

Orain dela urtebete pasatxo hasi zituzten Madalenako ospitalea eraberritzeko lanak. Lehen eginkizuna, 16. zenbakidun eraikina eraitea izan zuten. Obraren zuzendaritzaz arduratu den Jose Manuel Añon jesuitaren esanetan, "beranduago erantsitakoa eta interesik gabekoa" zen. Haren tokian plazatxo bat prestatu dute eta hortik sartuko dira bisitariak ospitalera.

► SAN INAZIO.

1535ean hiru hilabetez egon zen Loiolako Inazio ospitalean, zauriak sendatzen, eta egonaldi hark bihurtu zuen gerora interes bereziko gune Madalenakoa. 1935ean, santuaren egonaldiaren laugarren mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan, jarri zuten Inazioren argazkiko irudia Madalenako basilizian.





▲ INAZIOREN LEIHOA?

Tradizioak dioenez, San Inazio bigarren solairuan bizi izan zen, errepide zahararen aldera ematen duen leiho gotiko honen inguruan. Eraberritzearen ikurtzat dute leihoa.

► GARBITOKIAK.

Ospitalearen obretako aurkikuntza bitxietako bat izan dira. "Ibai aldekoa atontzen hasi ginenean, lehengo txabola zahar baten azpian lurperatuta hor azaldu zitzaizkigun bi garbitoki, epokakoak seguruenek, eta etxetik errekarako bidean", kontatu dio Añonek Uztarriari. Horiek ere berreskuratuko dituzte.



▲ 'OKUPAK'.

Eraikin zaharretan 'okupak' bizi izan dira. Haietakoek utzitakoa izan daiteke goiko egur xafla. Graffitiak ere bai.





◀▲ ARTISAU LANA.

Eraberritze lanak joan den urte bukaerarako amaitzea espero zuten, baina luzatu egin zaizkie azkenean. "Ezustekorik ez" dutela izan dio Añonek, baina eraberritzea "artisau lana" izan da, eta horrek denbora eskatzen zuen. Jatorrizko basearen gaian, Nafarroako haritzarekin osatu dute egurrezko egitura osoa, "garai hartako tradizioa imitatuz.

▲ AZKEN UKITUAK.

Erreportaje hau osatzerakoan oraindik lanean ari ziren Madalenako Ospitale berritan. Maiatzaren 1ean inauguratuko du bertan interpretazio zentroa Jesusen Lagundiak. San Inazioaren Azpeitiko ibilbidea osatzeaz gain, Madalena auzoaren biziberritzean eragitea ere espero dute.✳

